# Xedapen Orokorrak

**EKONOMIA ETA OGASUN SAILA**

**2111**

99/2010 DEKRETUA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko Zor Publikoaren jaulkipen bat edo hainbat egiteko edo zorpetze-eragiketak hitzartzeko baimena ematen duena, horiek prestatzeko modua edozein dela ere, barruko zein kanpoko eragiketetan, eta gehienez bi mila eta hogeita hamazortzi milioi euroko baliokidea izango den zenbatekoan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legeak dio zor publikoa jaulkitzea Gobernu Kontseiluak dekretu bidez erabakiko duela, eta dekretu horretan zenbatekoaren gehienezko mugak eta jaulkipena egiteko epea adierazi beharra dagoela, beste ezaugarri batzuk ere jaso daitezkeen arren. Halaber dio, dekretuan jaso ezean, ezaugarri horiek Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren agindu baten bidez finkatuko direla, eta agindu hori, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dela.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2010. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 2/2009 Legeak, 14. artikuluko 1. paragrafoan, baimena ematen dio Eusko Jaurlaritzari zorpetze-eragiketak egin ditzan, baina muga hau ezartzen dio aurrekontuaren gehikuntza horri: ekitaldia ixterakoan saldoa ekitaldia hasterakoan zena baino 1.914.350.000 euro gehiagokoa izango da gehienez ere.

2009. urtea ixtean zeuden zorpetze-eragiketak eta ekitaldi honetan egin beharreko amortizazioak kontuan hartuta, ekitaldi honetan formalizatu beharreko zorpetzearen gehienezko zenbatekoa, aurreko lege-murrizketa betez, 2.038.000.000 eurokoa da.

Mundu-mailako ekonomia- eta finantza-krisiaren bilakaeratik eratorri den nazioarteko finantza-merkatuen gaur egungo egoeraren ondorioz, ahalik eta malgutasun handiena eman behar zaio zorpetze-arloan erabakiak hartzeko prozesuari.

Bada, dekretu honen bitartez baimendutako erabakiekin lotutako erabaki-prozesuari malgutasuna ematearren, ezarri gabe utzi da zor-jaulkipenak bideratzeko tresna eta modalitate zehatzaren zehaztapena, bai eta finantza-baldintzen ezarpena ere, merkatuen egoera hobea izan eta horiek ezarri ahal izan arte.

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA**

**2111**

DECRETO 99/2010, de 30 de marzo, por el que se autoriza la realización de una o varias emisiones de Deuda Pública de Euskadi, o la concertación de operaciones de endeudamiento, cualquiera que sea la forma como se instrumenten, tanto en operaciones en el interior como en el exterior, por un importe máximo equivalente a dos mil treinta y ocho millones de euros.

La Ley 8/1996, de 8 de noviembre, de Finanzas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, establece que la emisión de deuda pública será acordada por el Consejo de Gobierno, mediante Decreto, el cual debe determinar los límites máximos de importe y de tiempo para realizar la emisión, pudiendo señalar otras características, que, en otro caso, serán determinadas mediante Orden del Consejero de Economía y Hacienda que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.

La Ley 2/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010, en su artículo 14, apartado 1, autoriza al Gobierno Vasco a realizar operaciones de endeudamiento, de forma que éste podrá incrementarse con la limitación de que el saldo al cierre del ejercicio no supere el correspondiente saldo al comienzo del mismo en más de 1.914.350.000 euros.

Considerando las operaciones de endeudamiento existentes a cierre del año 2009 y las amortizaciones a realizar durante el presente ejercicio, el importe máximo de endeudamiento a formalizar en el presente ejercicio, cumpliendo la restricción legal anterior, se sitúa en 2.038.000.000 de euros.

La situación actual de los mercados financieros internacionales, derivada de la evolución de la crisis económico-financiera mundial, exige dotar de la mayor flexibilidad posible al proceso de toma de decisiones en materia de endeudamiento.

Con este objetivo de dotar de flexibilidad al proceso de decisión asociado a las operaciones autorizadas mediante el presente Decreto, se deja la determinación del instrumento y modalidad concreta para la canalización de las emisiones de deuda, así como la fijación de sus condiciones financieras, al momento en que la coyuntura de los mercados permita su concreción.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak 2010eko martxoaren 30ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***1. artikulua.***– Zorpetze-eragiketak.

Erabaki da Euskal Autonomia Erkidegoak zor publikoaren jaulkipen bat edo hainbat egingo dituela, eta beste edozein zorpetze-eragiketa hitzartuko duela, kasu bietan barruan zein kanpoan, gehienez bi mila eta hogeita hamazortzi milioi (2.038.000.000) euroko baliokidea izango den zenbatekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko 2010. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 2/2009 Legeak, 14. artikuluko 1. paragrafoan, Gobernu Kontseiluari emandako baimenaren arabera.

***2. artikulua.***– Zorpetze-eragiketen ezaugarriak.

Honako ezaugarri hauek izango dituzte dekretu honek baimendutako zorpetze-eragiketek:

1.– Gehienezko zenbatekoa, guztira: 2.038.000.000 euro.

2.– Moneta: euroa edo beste edozein dibisa.

3.– Interes-tasa: finkoa edo aldakorra.

4.– Epea: gehienez 30 urte.

5.– Jaulkitzeko modalitateak: horrela egin ahal izango dira jaulkipenak:

– Zor Publikoaren jaulkipenen bidez, etekin esplizitu edo inplizituko baloreak zirkulazioan jartzea eragiten badute, eurotan edo beste edozein dibisatan, eta edozein formatu eta egitura erabilita.

– Mailegu edo krediturako beste edozein eragiketa-tipologiaren bidez.

***3. artikulua.***– Helburua.

Dekretu honek baimendutako zorpetze-eragiketetatik eratorritako baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoko 2010. ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak finantzatzeko erabiliko dira.

***4. artikulua.***– Onurak.

1.– Indarrean dauden arauei jarraituz, baimendu diren jaulkipenek Estatuaren Zor Publikoak dituen onura eta baldintza berberak izango dituzte.

2.– Dekretu honen bitartez jaulkitako baloreak jaraunspenez edo legatuz eskuratzen badira, beren arau erregulatzaileetan jasotako murriztapena izango dute dohaintza eta oinordetzen gaineko zergako zerga-oinarrian.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Economía y Hacienda, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 30 de marzo de 2010,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Operaciones de endeudamiento.

Se acuerda la realización por parte de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de una o varias emisiones de Deuda Pública, y la concertación de cualquier otra operación de endeudamiento, en ambos casos, tanto en el interior o en el exterior, por un importe máximo equivalente a dos mil treinta y ocho millones (2.038.000.000) de euros, con cargo a la autorización concedida al Consejo de Gobierno por la Ley 2/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010, en su artículo 14, apartado 1.

***Artículo 2.***– Características de las operaciones de endeudamiento.

Las operaciones de endeudamiento que autoriza el presente Decreto tendrán las siguientes características:

1.– Importe máximo total: 2.038.000.000 de euros.

2.– Moneda: euro o cualquier otra divisa.

3.– Tipo de interés: fijo o variable.

4.– Plazo: hasta un máximo de 30 años.

5.– Modalidades de emisión: las emisiones se podrán realizar:

– A través de emisiones de Deuda Pública que supongan la puesta en circulación de valores de rendimiento explícito o implícito, en euros o en cualquier otra divisa, y realizadas bajo cualquier formato y estructura.

– Mediante cualquier otra tipología de operación de préstamo o crédito.

***Artículo 3.***– Finalidad.

Los recursos derivados de las operaciones de endeudamiento, autorizadas por este Decreto, se destinarán a la financiación de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010.

***Artículo 4.***– Beneficios.

1.– De acuerdo con la normativa vigente las emisiones que se autorizan tendrán los mismos beneficios y condiciones que la Deuda Pública del Estado.

2.– Las adquisiciones por herencia o legado de los valores emitidos en virtud de este Decreto gozarán en la base imponible del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones de la reducción prevista en sus normas reguladoras.

3.– Aplikatu beharreko arau erregulatzaileak murriztapena aurreikusita ere, murriztapenaren ezaugarririk adierazten ez badu eta murriztapena egiteko eskubidea ematen duen zorpetze publikoaren jaulkipenaren baldintzetara jo beharra jasotzen badu, ehuneko laurogeita hamarrekoa izango da ehunekoa, baldin eta balore horiek kausatzailearen ondarean gutxienez urtebetez egon badira kausatzailea hil aurretik.

***5. artikulua.***– Konputagarritasuna.

Dekretu honen arabera jaulkitako baloreak gaitzat joko dira ondoren aipatzen diren erakundeen koefizienteetan egin beharreko inbertsioen ondorioetarako. Hauek dira erakundeak: elkarren bermerako sozietateak, aseguru pribatuko erakundeak, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak eta Estatuko Zor Publikoaren konputagarritasuna berez aitortuta duten erakundeak.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Gaikuntzak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legearen 30. artikuluko 3. paragrafoan agindutakoren arabera, Ekonomia eta Ogasun Saileko titularrari dagokio, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko agindu bidez, dekretu honetan onetsitako zor-jaulkipenak egiteko tresna eta modalitate zehatzak zehaztea, bai eta finantza-baldintzak eta, orobat, dekretu honetan jaulkipenari buruz aipatu ez diren gainerako ezaugarriak zehaztea ere, betiere dekretuaren aurreikuspenen barruan.

2.– Finantza Zuzendaritzako titularra baimendu da dekretu honek baimendutako zorpetze-eragiketak egin ahal izateko beharrezko kontratuak eta gainerako agiri erantsi eta osagarriak sinatzeko.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egun beretik egongo da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko martxoaren 30ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

3.– En el caso de que la norma reguladora aplicable prevea dicha reducción, pero no establezca explícitamente las características de la misma y se remita a las condiciones de emisión del endeudamiento público con derecho a ella, el porcentaje será el noventa por ciento, siempre que dichos valores hubiesen permanecido en el patrimonio del causante con una antelación mínima de un año, respecto al día de su fallecimiento.

***Artículo 5.***– Computabilidad.

Los valores emitidos en virtud del presente Decreto tendrán la consideración de aptos a los efectos de inversión necesaria en los correspondientes coeficientes de las sociedades de garantía recíproca, de las entidades de seguro privado, de las entidades de previsión social voluntaria y de aquellas otras entidades en relación con las que esté reconocida automáticamente la computabilidad de la Deuda Pública del Estado.

DISPOSICIÓN ADICIONAL.– Habilitaciones.

1.– De acuerdo con lo establecido en el párrafo 3.º del artículo 30 de la Ley 8/1996, de 8 de noviembre, de Finanzas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, corresponde a la persona titular del Departamento de Economía y Hacienda, mediante Orden publicada en el Boletín Oficial del País Vasco, determinar los instrumentos y modalidades concretas para realizar las emisiones de deuda aprobadas en el presente Decreto, así como concretar sus condiciones financieras y demás características de las emisiones no señaladas por el presente Decreto, dentro de las previsiones del mismo.

2.– Se autoriza a la persona titular de la Dirección de Finanzas para la firma de los contratos y demás documentos anexos y complementarios que sean precisos para llevar a cabo las operaciones de endeudamiento autorizadas por el presente Decreto.

DISPOSICIÓN FINAL.– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 30 de marzo de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.